

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Pentsatu dugu sare sozialak eta publizitatea direla modu hoberenak jendea erakartzeko eta beraien leialtasuna mantentzeko, hau da, harreman pertsonal bat izatea saiatuko gara.

Sare sozialen bidez, egunero egongo gara aktibo, eta gure lan-ordutegiaren egunerokotasuna komentatuko dugu, gure bezeroek ikus dezaten hurbiltasuna izan dezakegula. Gainera, sare sozialekin gazteengana irits gaitezke. Gazteak erakartzeko oso zailak dira, eta horregatik egingo ditugu horrelako gauzak:

- Inkestak egingo ditugu
- Berrikuntzei eta etorkizuneko proiektuei buruzko eguneratzeak
- Ekoizpena erakutsiko dugu

Publizitate-kartelak ere egingo ditugu, teknologia berrietatik hain hurbil ez dagoen adineko jendeak gure produktua ikusi eta eros dezan.

Beste ideia bat da tailer batekin elkartzea, produktuak konpontzeko, bezeroek konponketaren bat behar badute ere. Eta gure sare sozialetan denbora mugatuko eskaintzak jarriko ditugu, eskuragarriagoa izan dadin.